



# Hizkuntza-garapen ez-tipikoa haur elebidunengan: diagnosia eta eskuhartzea



**Ira. 15 - Ira. 16 2023**

**Kod. 018-23**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2023

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 15 - Ira. 16 2023

**Kokalekua**

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea

**Hizkuntzak**

Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**





Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## Azalpena

Uda Ikastaroa ekitaldi ireki eta zabala da, eta era askotako entzuleei dago zuzenduta. Irakasleak, orientatzaileak, logopedak, psikologoak, medikuak, terapeutak, ikasleak eta familiak izan daitezke ikastaroaren hartzaileak. Ikastaroa bilgunea da, gainera, haurren hizkuntza garapenarekin eta hizkuntza nahasmenduekin jakinmina dutenentzat, maila pertsonalean zein profesionalean, nahasmenduak eragindako arazoei erantzuten esperientzia duten pertsonen artean, dela terapiaren esparruan, hezkuntzarenean edo familia mailan. Ikastaroaren helburua hizkuntza-arazoen inguruko elkarrizketa eta hausnarketarako gunea sortzea da, ekimen eta ekintzak abiaraziko dituztenak hizkuntza-arazoak dituzten haurrei zailtasunei aurre egiten lagunduko dietenak.

Ikastaroa Nafarroako Lesakan egingo da, euskara erdara batekin (gaztelania edota frantsesa) ukipenean dagoen hiru lurralde euskaldun elebidunen erdigunean. Testuinguru honetan, hizlariak beren aurkezgaiak elebitasunera eta euskarara edo bestelako hizkuntza gutxitu batekiko elebitasunera hurbiltzea eskatzen zaie, izan ere, horrelako gaiak aintzat hartzen dituen ikerketa ez baita ugarietia. Horrexek egiten ditu uda ikastaro hau bezalako ekitaldiak garrantzizko, izan ere, eskarmentudun profesionalen esperientziak izatea, jasotzea eta partekatzea bultzatzen baitituzte, hizkuntza arazoak dituzten haurren eta familien egoera eraman errazagoa egiten lagunduko dutenak, zalantzarik gabe.

## Helburuak

Hizkuntza modu ohikoan eta ez-ohikoan garatzen ari duten haur elebatar eta elebidunekin diharduten ikertzaile eta profesionalak pilatutako ezagutza Ikastaroko partehartzailei ezagutaraztea, bai ikerketaren zein praktika kliniko eta hezkuntza esperientzien ondorioz lortutakoa.

Hizkuntza nahasmenduen eta hizkuntza-garapenaren inguruan burututako praktika kliniko eta hezkuntzakoari buruzko elkarrizketa, eztabaida eta hausnarketa bultzatzea, bai aurkezpen teoriko-praktikoen bidez, eta baita mahai-inguru eta adituari zuzendutako galdera-saioen bidez.

Hizkuntza nahasmenduen eraginak areagotu ez daitezten, hizkuntza nahasmenduak antzeman, ebaluatu eta haien balizko ondorio txarrak urritzen lagundu dezaketen esku-hartze eta ekimenak bultzatzea.

Hizkuntza-garapeneko nahasmenduaren inguruko ikasketan eta lanketan familien parte-hartzea bultzatzea.

Elebitasunak hizkuntzaren bereganatze prozesuan hainbat mailatan duen eragina hobeto ulertzea.

## Lankidetzak



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD





HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Programa

## 2023-09-15

15:30 - 16:00	Erregistroa / Registro
16:00 - 16:10	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra <b>Maria José Ezeizabarrena Seguro</b>   UPV/EHU-ELEBILAB - Irakasle eta Ikertzailea / Profesora e Investigadora
16:10 - 17:00	“Trastorno del desarrollo del lenguaje y bilingüismo: ¿ventaja bilingüe o tormenta perfecta? / Elebitasuna eta Hizkuntza-garapeneko nahasmendua: elebiduntasuna, abantaila ala ekaitz perfektua?” <b>Llorenç Andreu Andreu Barrachina</b>   Universitat Oberta de Catalunya - Investigador / Ikertzailea
17:00 - 17:35	“Del TEL al TDL. Impacto de la nueva conceptualización en la práctica / TEL edo Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikotik TDL edo Hizkuntza-garapeneko nahasmendura. Kontzeptualizazio berriak praktikan duen eragina” <b>Nadia Ahufinger Sanclemente</b>   Universitat Oberta de Catalunya - Investigadora
17:35 - 18:00	Atsedena
18:00 - 18:30	“Perfiles comunicativos en TEA: De los gestos al lenguaje / Profil komunikatiboak TEA edo Autismoaren espektroko nahasmenduan: keinuetatik hizkuntzara” <b>Sara Ramos Cabo</b>   Lindy Lab (UPV/EHU) - Investigadora / Ikertzailea
18:30 - 19:00	“Autismoaren espektroko nahasmenduaren ebaluaketa eta ikerketa UPV/EHU: autismodunak hobeto ezagutzeko tresnak / Evaluación e investigación sobre TEA en la UPV/EHU: herramientas para conocer mejor a las personas autistas” <b>Ekaine Rodriguez Armendariz</b>   Lindy Lab (UPV/EHU) - Lan Terapeuta eta Ikertzailea <b>Zuriñe Abalos</b>   Lindy Lab (UPV/EHU) - Ikertzailea / Investigadora
19:00 - 20:00	Mahai ingurua: “Preguntas al experto sobre cómo abordar los trastornos del desarrollo del lenguaje / Adituari galdezka: Nola heldu dakizkieke hizkuntza garapeneko nahasmenduei?” <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra (Moderatzailea) <b>Llorenç Andreu Andreu Barrachina</b>   Universitat Oberta de Catalunya - Investigador / Ikertzailea <b>Nadia Ahufinger Sanclemente</b>   Universitat Oberta de Catalunya - Investigadora / Ikertzailea <b>Sara Ramos Cabo</b>   Lindy Lab (UPV/EHU) - Investigadora / Ikertzailea

## 2023-09-16

09:00 - 09:45	“Trabajo en red en los trastornos de adquisición del lenguaje: una propuesta de atención primaria de salud. / Hizkuntza-garapeneko nahasmenduaren inguruko lana sarean: proposamen bat osasunbideko lehen arretarako” <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra
---------------	--

09:45 - 10:35	<p>“CREENAREN ekarpena hezkuntza-behar bereziko Nafarroko ikasleen heziketan: beharren detekzioa, balorazioa eta esku-hartzea bi hezkuntza-eredutan / La aportación del CREENA a la educación de los escolares navarros con necesidades educativas específicas: detección, evaluación y respuesta a sus necesidades en dos modelos educativos”</p> <p><b>Iñaki Martínez Urmeneta</b>   CREENA - Zuzendaria / Director</p>
10:35 - 11:05	<p>“Hizkuntzako nahasmendua duten haur euskaldunen gramatika: hurbilketa bat / Aproximación a la gramática de los niños euskaldunes con trastorno del lenguaje”</p> <p><b>Ainhoa Leyaristi Oñederra</b>   UPV/EHU - ELEBILAB - Ikaslea  <b>Maria José Ezeizabarrena Seguro</b>   UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-investigadora</p>
11:05 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	<p>“Haur euskaldunekiko Eskuhartze logopedikoa / Intervención logopédica con niños y niñas euskaldunes”</p> <p><b>Ainara Lakuntza Mazkianan</b>   Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda  <b>Cristina Mazkianan Zufiaurre</b>   Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda</p>
12:30 - 13:15	<p>“Atención temprana en el niño con hipoacusia. Casos prácticos / Entzumen urritasuneko haurren arreta goiztiarra. Kasu batzuk”</p> <p><b>Patricia Piqueras Gonzalez</b>   CAT Pamplona - Logopeda</p>
13:15 - 14:15	<p>Mahai ingurua: “Trabajo en red : De la teoría a la práctica / Lana sarean: teoritik praktikara”</p> <p><b>Maria José Ezeizabarrena Seguro</b>   UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-investigadora (Moderatzailea)  <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra  <b>Iñaki Martínez Urmeneta</b>   CREENA - Director  <b>Ainara Lakuntza Mazkianan</b>   Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda  <b>Patricia Piqueras Gonzalez</b>   CAT de Pamplona - Logopeda</p>
14:15 - 14:30	<p>Itxiera</p> <p><b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra  <b>Maria José Ezeizabarrena Seguro</b>   UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea</p>

## Zuzendaritza



### **Belen Compains Beaumont**

Osasunbidea

---

Nafarroako Unibertsitatean medikuntzan lizenziatua. Nafarroako Hospitalean pediatria espzializazioa. 1990 geroztik Lehen Mailako Arretako mediku bezala lan egiten dut, lehengo hirurak Iruñeko Udalaren mediku gisako lanarekin konpatibilizatuta. 1993 geroztik Lesakako Osasun Zentroko pediatria. Desagertutako Bortzirietako ELAIAko (Equipo Local de Atención a la Infancia y Adolescencia) bazkide sortzailea. Nafarroako Arreta Goiztiarraren Elkartearen sortzaile eta lehen Lehendakaria. Nafarroako pediatria elkartearen haur garapenaren taldekidea. Oraingo Haur Garapenaren eta ohiko Arreta Goiztirarraren NAUPeko irakasle laguntzailea. Ur terapia eta neurorehabilitazioari buruzko Lesakako ikastaroen zuzendaria. 2017.ko bi ikastaroetan hizlaria. Arreta goiztiarraren azken hiru kongresuetan gutxienez eta Nafarroako pediatira elkartean komunikazioak aurkeztu ditut, beti haur garapena eta Arrta Goiztiarrarekin lotuta. Une honetan hiru ikerketa proiektuetan parte hartzen ari naiz.



### **Maria José Ezeizabarrena Seguro**

Letren Fakultatea - ELEBILAB (UPV/EHU)

---

Euskal Filologia Litzentziaduna (UPV/EHU) eta Hizkuntzalaritzan Doktore (U. Hamburg, Alemania). Irakasle eta ikertzaile Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean eta ELEBILAB Ikertaldeko zuzendaria (UPV/EHU). Ikerketa gaiak: elebitasun goiztiarra; haurren keinuak, hiztegia, gramatika eta fonologia; hizkuntzaren erabilera hizkuntza-ukipen egoeratan eta baita hizkuntza-garapena hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurrengan ere.


## Irakasleak



### **Zuriñe Abalos**

---


Zuriñe doktorego ikaslea da, UPV/EHU-ko Hizkuntzalaritza Programan matrikulatua, eta Eusko Jaurlaritzako beka baten laguntza dauka (Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Beken Programa), AEN (Autismoaren Espektroko Nahasmena) eta HGN (Hizkuntza Garapenaren Nahasmena) populazioen diskurtso-egiturari buruzko tesia egiteko, Elena Castroviejok eta Begoña Vicentek zuzenduta.



### **Nadia Ahufinger Sanclemente**

---

Nadia Ahufinger doktore da, Psikologia Klinikoa eta Osasun psikologian Universitat de Barcelonan (UB). GRECIL ikertaldeko kide da (Grupo de investigación en Cognición y Lenguaje). Bere ikerketa hizkuntza garapeneko nahasmenduetan kokatzen da (TDL/TEL) eta baita beste neurogarapeneko eta ikasketa nahasmenduetan ere. Ikerlerro nagusiak biztanlerian eragina izan dezaketen prozesu psikologiko oinarritzaren ezagutzaren inguruan kokatzen dira (memoria, adibidez) eta bestelako nahasmenduen eraginaren ikerketan, hala nola emozio- eta ikasketa mailakoak. Androzentrismoaren eragina ikertzen du hizkuntza nahasmendudun neskatilen ebaluaketan eta eskuhartzean.



### **Llorenç Andreu Andreu Barrachina**

---

Llorenç Andreu irakasle katedraduna da, ikertzailea eta Universitat Oberta de Catalunya (UOC)-ko eHealth Center-eko Ikertzaile Nagusia. Gainera, Grupo de Investigación en Cognición y Lenguaje (GRECIL) ikertaldeko ko-zuzendaria da. Lehen Hezkuntzako diplomaduna eta Psikopedagogiako lizentziaduna da Universitat Jaume I-en (UJI) eta doktore, Zientzia Kognitibo eta Hizkuntzan, Universitat de Barcelonan. Irakasle lanetan ere aritua da (U. Jaume I, 2006-2007, U. Barcelonan 2007-2012) lehenago eta orain UOC-en dihardu, 2009z geroztik. Dekanorde aritu zen UOC-en Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako Ikasketetan (2017-2020) eta zuzendari, Máster Universitario en Dificultades del Aprendizaje y Trastornos del Lenguaje-masterrean (2012-2021). Ikertzaile bisitari egonaldian egin da Universidad de Pensilvanian (UPenn), Universidad de Puerto Rico-n (UPR) eta Dallaseko U. Texasen (UTD). Hizkuntza garapeneko nahasmenduaren inguruan kokatzen da bere ikerketa, nagusiki.





### **Ainara Lakuntza Mazkieran**

---

Logopedia Graduduna Salamancako Universidad Pontifician. Master profesional bat du egin Arreta goiztiarra eta Hezkuntza berezian (Albor-Cosh, Bilbo) eta beste bat Ikasteko Zailtasunak eta Portaera Arazoei buruzkoa (Albor-Cosh, Bilbo). Unibertsitateko aditu titulua Psikomotrizitatea eta neuromotrizitatean. Logopeda aritua da Iñigo Aritza ikastolan (ikasturte bat) eta egun Altsasuko Ubide gabinete psikopedagogikoan dihardu, 2013z geroztik.



### **Ainhoa Leyaristi Oñederra**

---

Ingeles Ikasketetako Graduduna (UPV/EHU,2022). Egun Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentaleko Masterra egiten ari da.



### **Iñaki Martinez Urmeneta**

CREENA

---

Nafar Gobernuako hezkuntza orientatzaile 1993 geroztik. CREENAKo aholkularia 2000-2009 bitartean. Nafar Gobernuako Ikerketa Linguistikoaren bekaduna honako lanarekin: "Hizkuntza murgiltze prozesuan dauden HPBko ikasleen jarraipena" 2006. NAUPeko Magisteritza eskolako irakaslea 2010-2014. Bizikidetza aholkularia 2017-2019. CREENAKo zuzendaria 2019ko iraila ezkerostik.



## **Cristina Mazkian Zufiaurre**

---

Filosofía eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, Pedagogia atalean eta hezkuntza orientazioa sekzioan. Ikerketarako Gaitasuna lortu zuen NUPeko Psikologia eta Pedagogia saileko Doktorego programan. Másterduna Neuropsicología Klinikoko nazioarteko masterrean (U. europea Miguel de Cervantes). Logopedian luzaroan aritua da Altsasuko Ubide gabinete psikopedagogikoan, 1990z geroztiz, eta ANFASen, besteak beste. Orientazio lanetan aritu da Iñigo Aritza Ikastolan.



## **Patricia Piqueras Gonzalez**

---

Logopedia Diplomaduna, Salamancako Universidad Pontifician. Magisteritza Diplomaduna Haur hezkuntzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Logopeda dihardu Nafarroako Arreta Goiztiarrean 2007z geroztik.



## **Sara Ramos Cabo**

UPV-EHU

---

Sara Juan de la Cierva Postdoc ikertzailea da UPV/EHU. Masterra BCBLen eta Doktorego ikasketak Norwegian University of Science and Technologyan (NTNU) egin zituen Marie Sklodowska-Curie beka batekin. Doktoregoa amaitu ondoren, Autism Center of Excellence, University of California San Diego (UCSD)n aritu zen ikertzaile. Autismoaren fenotipo klinikoan espezialitatu da eta gaitasun kognitiboak, hizketa bidezko eta hizketaz kanpoko komunikazioan lan egin du. Profil kliniko eta ikertzailea bateratuz, Sararen interes nagusienetarikoak ikerketa translazionala eta neuroaniztasuna duten pertsonen bizikaltatea hobetzea dira.



## **Ekaine Rodriguez Armendariz**

EHU HiTT

---

Ekaine lanbidez Lan Terapeuta da eta Neurozientzietan Doktoretza du. Biztanleria pediatrikoarekin jorratzen du bere lan klinikoa eta garapen zailtasunekin lotutako ikerketa proiektu desberdinetan parte hartu du.

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-09-14 ARTE</b>	<b>2023-09-15 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	-	59,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	-	0 EUR	-
Orokorra	-	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	-	59,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	-	21,00 EUR
<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-09-14 ARTE</b>	<b>2023-09-15 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	-	59,00 EUR
Orokorra	-	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	-	59,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	-	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	-	21,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	-	-	0 EUR

# **Kokalekua**

## **Lesakako Harriondoa Kultur Etxea**

Komentu Kalea 1. Lesaka

Nafarroa